



Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica

Finantza kaudimeneko txostenen aurkezpen digitala Kontratazio Publiko Elektronikoaren Ereduan



www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

17

Dagoeneko finantza kaudimenaren txostenak aurkez daitezke Kontratazio Publiko Elektronikoaren eredian

Kontratatzeko espediente motaren eta zenbatekoaren arabera, Administrazio Publikoak ziurtagiri bat eska dakieke enpresei. Ziurtagiri hori banketxeek egin beharko dute eta lizitatuzailearen finantza kaudimenaren berri emango du.

Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Publiko Elektronikoaren eredian finantza kaudimenaren txosten horiek modu digitalean aurkez daitezke orain.




Finantza kaudimenaren txosten digitalak

Finantza kaudimenaren txosten digitalak paperean egiten den agiri horren eredu digitalak dira eta aitortutako sinadura elektronikoa erabiltzen da horiek sinatzeko. Txostena egiteko testu-tratamendu sistema bat erabiltzen da (Word, Adobe Acrobat, Open Office, etab.), baina fitxategi digitalak sortzen dituzten aplikazio bereziak ere erabili daitezke (XML, ejgv.doc, etab.). Ondoren sinadura elektronikoa jartzen zaie Aintzatetsitako Erakunde Ziurtatzaile baten zerbitzuen bidez.

Aintzatetsitako Erakunde Ziurtatzaileek, Izenpe Eusko Jaurlaritzaren kasuan, ezagututako sinadura elektronikoen bidez bermatzen dute igorlearen nortasuna eta egiazkotasuna, dokumentu edo mezuaren zuzentasuna, eta ematean edo jasotzean onartzen dela.

Hala, finantza-erakundeek bankuko txosten digitalak sortu eta bidali ahal dizkiete bezeroei, eta txosten horiek, eskaintza elektronikoen prozesuetan erabili ahal izango dituzte enpresek.





Eredu erraz, erabilgarri
eta segurua



Finantza kaudimeneko txostenen berme digitalei eusten dien Lege Gorputza

Finantza kaudimeneko txostenen berme digitalei eusten dien lege-gorputza ondorengo esparru juridikoak osatzen du:

- Europako parlamentuaren eta kontseiluaren 1999/93/EE Zuzentaraua, 1999ko abenduaren 13koa, erkidegoko esparrua ezartzen duena izenpe elektronikorako.
- Irailaren 17ko 14/1999 Errege Lege-dekretua, izenpe elektronikoa, bere eraginkortasun juridikoa ezagutzeari, eta publikoari ziurtapen zerbitzuak emateari buruzkoa.
- 2000ko otsailaren 21eko agindua, ziurtapen zerbitzuak ematen dituztenen ziurtapen arautegia, eta izenpe elektronikoko produktu jakin batzuen ziurtapena onartzen duena.
- Abenduaren 59/2003 Legea, izenpe elektronikoa buruzkoa


Finantza kaudimenaren txostenak kudeatzeko prozesua Kontratazio Elektronikoaren esparruan

Finantza kaudimenaren txostenaren bizi-zikloa eskaintza elektronikoa ondorengoa da:


- Finantza-erakundeek kaudimen txostena sortzen du:
 - Kaudimen txostena sortzea.
 - Kaudimen txostenaren izenpe elektronikoa.
 - Kaudimen txostena eskatu duen enpresari bidaltzea.
- Enpresak eskaintza prestatzea, kaudimen txosten digitalaren karga eta eskaintza elektronikoa:
 - Eskaintzaren karga, eskaintza elektronikoa aplikazioaren A, B eta C gutun-azalean.
 - Kaudimen txosten digitalaren karga eskaintza elektronikoa aplikazioaren B gutun-azalean.
 - Eskaintzaren eta kaudimen txosten digitalaren izenpetze elektronikoa.
 - Eskaintza eta kaudimen txosten digitala eskaintza elektronikoa aplikazioaren bitartez bidaltzea.
- Administrazioak Eskaintzen Irekitze Publikoa:
 - Eskaintza elektronikoa sistemaren zerbitzari zurrak irekitzen da gutun-azal itxiak irekitzeko ordu ofiziala heltzean, eta kontratazio-mahaiko kideen gutxiengo kopurua dagoenean.
 - Enpresak A, B eta C gutun-azalean sartutako fitxategiak jaitsi eta deskodetzen hasten dira.
 - Eskaintza sinatu duen enpresako ordezkariaren ahalmena eta ordezkariaren izenpe elektronikoa egiaztatzen du.
 - Kaudimen txosten digitala irekitzen da.
 - Kaudimen txosten digitala sortu duen Finantza-erakunde ordezkariaren izenpe elektronikoa egiaztatzea.
 - Kaudimen txosten digitala balioztatzea




Kaudimen txostena ematea



Eskaintza prestatzea



Gutun-azal itxiak irekitzeko ekitaldi publikoa





Eredu erraz, erabilgarri eta segurua




100110010100


0100011110101010101010101010100111001001010101




5



6



7



8

Eskaintzaren prestaketa, kaudimen digitala kargatu eta enpresak egindako eskaintza elektronikoa ikusi



Erantsitako irudietan kaudimenaren txosten digitala eskaintza elektronikoa

batean erabiltzeko eman beharreko urratsak erakusten dira:

- 5. irudia: B gutun-azalak kaudimenaren txosten digitala duen fitxategia eransteko ontzia duela ikus daitezke.
- 6. irudia: kaudimenaren txosten digitala B gutun-azalean sartzeko prozesua ikusten da.
- 7. irudia: eskaintza osoaren edukia ikus

daitezke, baita kaudimenaren txosten digitala ere, izenpetzeko eta Kontratazio Publiko Elektronikokoaren sistemaren zerbizarietara bidaltzeko prest dago.

- 8. irudia: Eusko Jaurlaritzaren sarrera eta irteeren liburu telematikoa eskaintza jaso den izenpe ziurtagiria, B gutun-azalean dagoen kaudimenaren txosten digitala ere hor dago.



9

Administrazioak Eskaintzak Irekitzeko Ekitaldi Publikoa: kaudimenaren txosten digitala sortu duen finantza-erakundearen izenpe elektronikoa egiaztatu

Administrazioak egindako Eskaintzak Irekitzeko Ekitaldian, kontratazio elektronikoen mahaiko idazkariak ondorengo eginkizunak burutzen ditu:

- Gutun-azal itxiak irekitzeko ordu ofiziala heldu eta kontratazio-mahaiko kideen gutxieneko kopurua lortu ondoren, eskaintza elektronikoen sistemako zerbitzari zuzira ireki.
- Enpresak A, B eta C gutun-azaletan emandako fitxategiak deskargatu eta deskodetu.
- Eskaintza izenpetu duen enpresako ordezkariaren ahalmena eta izenpe elektronikoa egiaztatu.
- Kaudimenaren txosten digitala sortu zuen finantza-erakundearen ordezkariaren izenpe elektronikoa egiaztatu. (9. irudia)
- Kaudimenaren txosten digitala balioztatatu.

